

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hilaren 27an amaitzen da Iníciate 2019 Sarietara hautagaitzak aurkezteko epea

Lehiaketan, 6.000 euroko sari bana emango da kategoria hauetan: proiektu teknologiko berritzaile onenari saria eta proiektu ez-teknologiko berritzaile onenari saria

Osteguna, 2019.eko otsailak 21

Otsailaren 27an (asteazkenean) amaitzen da Nafarroako Gobernuak Nafarroako Enpresa eta Zentro Europarra (CEIN) sozietate publikoaren bidez deitutako [Iníciate 2019 Sarietara](#) hautagaitzak aurkezteko epea. Horren bidez, Nafarroako Foru Erkidegoan enpresa-proiektu berritzaileei bide emango dieten negozio-ideiak detektatu nahi dira.

Lehiaketan, enpresa berritzaileerako ideia edo proiektu bat daukan estatuko pertsona orok parte har dezake. Bosgarren deialdi honetan partaidetzarako bi modalitate daude.

Lehenengoa "proiektu teknologiko berritzaile onenari saria" zientzian eta/edo teknologian oinarritutako negozio-ideia edo proiektu berritzailea duten pertsonen zuzenduta dago, teknologia hori izango delarik etorkizuneko proiektuaren ardatza. Unibertsitateetako ikerketa-taldekide, teknologialari eta lorpen teknologikoak izan dituen pertsona orori zuzenduta dago, baldin eta lorpen horiek ekintzaitzako ekimen bereizgarri berrietarako oinarritzat har badaitezke.

"Proiektu ez-teknologiko onenari saria" modalitatean, berriz, aurreko modalitatean eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte ere enpresa-proiektu berritzaileak dituzten pertsonen parte har dezakete.

Kategoria bakoitzeko proiektu irabazleak 6.000 €-ko saria jasoko du, enpresa sortzeko Nafarroan. Horrez gain, sei hilabetez CEINen Berrikuntza Haztegia egoteko aukera izango dute, dohainik, eta proiektua aurrehautatua izateko ere, CEINek kudeatzen duen Nafarroako Gobernuaren Sustapen Ekintzailea azkartzeko programaren zazpigarren edizioan parte hartzeko.

Iníciate 2019 Sarietara hautagaitza aurkeztu nahi duten pertsonen izena emateko eskaera bete behar dute, www.cein.es helbidean, eta hautagaitza online izapidetu. Epemuga otsailaren 27a da, asteazkena.